



FORO DE BARRIO
AUZO-EZTABAIDAGUNEA
2018
MENDILLORRI

Fecha / Data:	2018/05/29
Hora / Ordua:	18:30
Lugar / Kokalekua:	Mendillorriko Civivoxa
Concejala de barrio / Auzo-zinegotzia:	Laura Berro
Participantes / Parte-hartzaileak:	11 emakume eta 15 gizon
Otros / Bertze batzuk:	
Moderadora / Moderatzailea:	Partaidetzako teknikaria: Floren Luqui Dinamizazio Komunitarioko Zerbitzua: Gabriel de Diego, Sergio Espinosa, Maitane Urmeneta eta Elena Esparza

Apertura / Hasiera

Floren Luqui Herritarren Partaidetzako teknikariak ongi etorria eman die bertaratu diren lagunei, eta eskerrak eman dizkie etortzeagatik eta beren prestutasunagatik. Jarraian, azaldu du nola funtzionatuko duen eztabaidaguneak eta zer atal izango dituen.

Ondoren, Luquik hitza eman dio Laura Berro auzo-zinegotziari; Berrok eskerrak eman dizkie bertaratuei Mendillorriko 4. auzo-eztabaidagunera etortzeagatik, eta Oihana Gallo Partaidetzako teknikariari bere lanpostuan egindako lanagatik.

El Ayuntamiento informa / Udalak informatzen du

Zinegotziak hitza hartzeraz gonbidatu du Mikel Baztán, Iruñeko Udaleko lorategien zuzendaria; Baztánek Antzarako ingurunean diseinatutako Antzaragarri proiektua azaldu du. Xabik (Bideberri Prebentziozko Komunitate Ekintzako Zerbitzukoa) informazioa osatu du, eta proiektuaren jatorria eta auzoko adingabeen ikuspegia azaldu ditu, bai eta adingabeei begirakoa ere.

Ana Díaz de Urek, Udalaren Berdintasun Alorreko teknikariak, hitza hartu du, eta erran du Iruña hiri aitzindaria dela eraso sexisten aurkako borrokan, eta azaldu du zer ekimen jarri diren abian erasoei aurre egiteko, lehenbizi Sanferminetan, eta dagoeneko hiriko auzo guztietan.



El barrio informa / Auzoak informatzen du

Floren Luqui Herritarren Partaidetzako teknikariak ongi etorria eman die bertaratu diren lagunei, eta eskerrak eman dizkie etortzeagatik eta beren prestutasunagatik. Jarraian, azaldu du nola funtzionatuko duen eztabaidaguneak eta zer atal izango dituen.

Ondoren, Luquik hitza eman dio Laura Berro auzo-zinegotziari; Berrok eskerrak eman dizkie bertaratuei Mendillorriko 4. auzo-eztabaidagunera etortzeagatik, eta Oihana Gallo Partaidetzako teknikariari bere lanpostuan egindako lanagatik.

Jarraian, hitza eman die Carlotari eta Ibairi, Antzarako ordezkariari; haiek azaldu dute nolakoa izan den lehenbiziko urtea. Azaldu dituzte auzoan prozesuak izan duen 25 urteko ibilbidea eta 2017ko ekainetik aurrera egin diren 73 jarduerak (horietako 9, asterokoak), eta parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrak.

- Aire zabaleko jarduerak.
- Batukada.
- Josketa.
- Gurasoentzako taldea.
- Musika-entseguak.
- Erraldoien taldeen entseguak.
- Dantza-taldeen entseguak.
- Liburutegia.
- Aisialdirako esparrua.

Grupos de Trabajo / Lantaldeak

Auzo-eztabaidagunearen lehenbiziko atala amaitzeko, gaurko diseinatutako lan-dinamikak eta lantaldeak aurkeztu ditu Luquik.

LAN-DINAMIKAK

LABURPENA

Luquik azaldu du nolakoak izango diren eztabaidaguneak irauten duen bi orduetan jardungo duten bi lantaldeak. Bertaratuak bi taldetan banatuko dira, bakoitzaren interesen eta lehenbiziko taldean, auzoko MERKATARITZARI loturiko alderdiak landuko dira, eta, bigarrean, Mendillorri auzoko MUGIKORTASUNARI loturikoak.



Jarraian, denen aurrean azalduko dute zer landu den lantaldeetan; ondoren, kontsultaxanda ireki bat egingo da, eta zinegotziak erantzungo die landutako gaiari.

EMAITZAK

Taldeetako parte-hartzaileei bi lan-dinamika azaldu zaizkie. Lehenbizi, bertaratuek post-iten bidez adierazi behar dute auzoko zer alderdi landu nahi dituzten, eta horiek hiru taldetan sailkatu, horretarako dagoen panelean jartzen duen bezala: *“Interes orokorreko proposamenak”*, *“Salaketak”* eta *“Gorabeherak”* (salaketei dagokienez, azpimarratu du hori ez dela horiek jakinarazteko esparru egokia, tentuz aztertzeo gaiak baitira), .

Post-itak irakurri ondoren, ikusita zenbait gorabehera oso konkrituak direla, eskatu dute auzoko mapara eramateko, gometsen bidez jakiteko haien kokapen zehatza. Halaber, azaldu dute han islatzen diren gaietako bakoitzari buruz hitz egingo duela gero Laura Berrok.

Lehenbiziko dinamika horren ondoren, bigarrenaren edukia azaldu dute: aukeratutako lantaldearen gaiari buruzko proposamenak egin beharko dituzte post-iten bidez.

AUZOTARREK LEHEN DINAMIKARI EGINDAKO EKARPENAK

GORABEHERAK - KEXAK

- 1.- Egoera txarrean daude 4. faseko espaloiak.
- 2.- Saltegiak falta dira 4. fasean.
- 3.- Elorri ikastetxean bidea itxita dago.
- 4.- Gurutzatzeko denbora laburregia da oinezkoen pasabideetan.
- 5.- Automobil-zirkulazio handiegia dago ikastetxera sartzeko orduetan.
- 6.- Txakur-kakak daude plazetan.
- 7.- Altzuza Kontzejuaren kalea: euriak eragindako ur-putzuak.
- 8.- Antzararako irisgarritasuna hobetzea (sarbide-giltza gehiago).
- 9.- Txakurrak solte ibiltzeko eremuak prestatzea.
- 10.- Igogailua ez da erabilgarria.
- 11.-Aparkaleku gehiago jartzea institutuko patioaren ondoan.
- 12.-Villavesaren ibilbide bikoitza gaitzea.
- 13.- Auzoa autoz zeharkatzea zailtzea Iruñera iristeko.
- 14.-Autoentzako kaleetan biraketa aldatzea.
- 15.- Villavesa-kopuru bikoitza jartzea goizez.
- 16.- Autoen abiadura murriztea kaleetan.
- 17.- Jendea bizikletaz mugitu dadin erraztea.
- 18.- Igogailua eraikitzean kudeaketa txarra izan da (oinetakoentzako arriskua).



19.-

ZORIONTZEA

1. Antzara eraikitzeagatik.
2. Igogailua eraikitzeagatik.

Ondoko taulan jasota daude bertaratuek egindako proposamenak, planteatutako hiru gaien arabera sailkatuta; horrez gain, iradokizun edo kexa bakoitza auzoko mapan jaso da, dagokion kokapenean.

COMERCIO - MERKATARITZA

1. Barneko patioak vs. espaloiak: desio-lerroak.
2. Oinezkoentzako pasabideak: goratzea.
3. Oinezkoentzako pasabideak: ikuspena.
4. Oinezkoentzako pasabideak: jarraitutasuna (ikastetxeak, eskolak...).
5. Merkataritza-kaleak.
6. Egoteko guneak: eserlekuak.
7. Egoteko guneak: landareak.
8. Bizikletentzako ekipamendua (aparkalekuak)



MUGIKORTASUNA

1. Lakuaren garbiketa (eskerrak ematea).
2. Zebrabide arriskutsua.
3. Markesina eta eserlekua falta dira villavesaren geralekuan.
4. Linea-amaiera jartzea auzoko azken geralekuan.
5. Metalezko 7 izugarria.
6. Trinketaren eremua autoz kolapsatuta egoten da.
7. Bidegorria estua da.
8. Igogailua kentzea.
9. Bidegorria, egungo bideei lekua kendu gabe.
10. Etorkizuneko proiektuak egitean berdeguneak errespetatzea.
11. Bidegorria jartzea auzo osoan.
12. Antzara plaza elkargune gisa.
13. Berdeguneak errespetatzea.
14. Igogailua arbuiatzea.
15. Noranzko bikoitza jartzea kale jakin batzuetan.
16. Markesinetan eserlekuak jartzea.
17. Pipi can bat jartzea.
18. Institutuko patioa irekitzea Lakuaren eremuan.



19. Parkea egokitzea (eskerrak ematea).
20. Antzara (eskerrak ematea).
21. 'Guardia etzanak' (zerrenda goratuak) jartzea abiadura moteltzeko.
22. Noranzko bikoitza villavesetan.
23. Papi can bat.
24. Pilotaleku txikia.
25. Erretiratuen Kluba.
26. Mutiloanzko bidea.
27. 30 km/h-ko hiria.
28. Gehiegizko zirkulazioa (Haurrei buruzko Planean jasota).
29. Autoak bigarren ilaran.
30. Espaloiak estuak dira.
31. Bizikletentzako ikuspen txikia.
32. Haurtzaindegiaren inguruetan auto-pilaketak sortzen dira.
33. Ibilgailuen abiadura kontrolatzea.
34. Sarrigurengo errepideko semaforo-sekuentzia.





DINAMIKEN EMAITZA BATERATZEA

EMAITZEN INGURUKO TALDE-GOGOETA

Lantaldeen ordezkariak eta Dinamizazio Zerbitzuak denen aurrean partekatu dituzte bigarren dinamikaren emaitzak; aurreko tauletan jasota daude haren puntu nagusiak. Halaber, parte-hartzaileek zenbait ekarpen egin dituzte:

- Auzoko Haurrei buruzko I. Udal Planaren ondorioek erakusten dute gazteek autoei dieten beldurra dela Mendillorri lehentasunez landu beharreko alderdietako bat.
- Igoailua auzotarrak kontra zeudelarik eraiki da; errefusa adierazteko manifestu bat irakurri zuten aurreko auzo-eztabaidagunean.

El Ayuntamiento informa / Udalak informatzen du

LAURA BERROAREN HITZAK: HERRITARREN ESKAEREI ETA EKARPENEI ERANTZUTEA ETA ZEHAZTEA

Laura Berrok, lehenbiziko dinamikan parte hartu zuten lagunek egindako proposamenei erantzuteko, honako puntu hauei heldu die:

- Espaloiak hobetzeko eskaerari dagokionez, hura mailaz mailako prozesua da, eta dagoeneko jasota dago udalaren jarduketa-planetan.
- 4. fasean saltegirik ez egoteari buruzko kexa partekatzea.
- Pipi canen gaiari dagokionez, Hiri Ekologiako Alorrak onartu du hobetu daitezkeela, eta hobekuntza bat aurreikusita dago udarako Campamento Mendiaren kalearen eremuan.
- Antzara: jaso da emandako zorientzea, baita sarbide giltza gehiagoren eskaera ere.
- Kaleetan ur-putzuak egoteagatik kexak: Hiri Ekologiako Alorrari helaraziko zaio.
- Mugikortasunaren inguruko eskaerei dagokienez, honako gai hauei erantzun edo heldu zaie: igogailua, oinezkoentzako pasaguneak, espaloietan autoak egotea, villavesak, hiri-garraioa erabiltzea sustatzeko ekintzak...



Auzo-eztabaidagunera bertaratu den lagun batek hitza eskatu, eta zorionak eman ditu haur-eskolaren inguruko berdegune-lorategian egindako jarduketagatik.



Cierre / Amaiera

Herritarren Partaidetzako teknikariak auzo-eztabaidagunea amaitutzat eman du; eskerrak eman dizkie bertaratuiei eztabaidagunera etortzeagatik, eta hurrengo eztabaidagunera gonbidatu ditu. Halaber, Laura Berro zinegotziari ere eskerrak eman dizkio.